

 AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H	IL0003	Adingabeak atzerrira bidaiatzeko baimena
---	---------------	---

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Aitak/amak edo tutoreak adingabe bati atzerrira bidaiatzeko ematen dion baimena da, gurasoetakoren batekik edo guraso ahala edo legezko zaintza duenarekin ez doanean.

Eskakizunak:

- Norbanakoaren pasaporterik ez edukitzea eta atzerrira NANarekin bakarrik bidaiatzea. Baliagarria da Espainiako NANarekin sartzea baimentzen duten herrialde guztietarako. Adingabeek pasaporte badaukate, ez dute inolako baimen gehigarririk behar.

NORK ESKA DEZAKE?

Adingabearen aitak eta amak edo lege tutoreak.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Aitaren eta amaren / legezko tutorearen eta adingabearen NAN indarrean.
- Familia liburua.

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- [Udaletxea](#)
Udaletxea
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
Ordutegia: 7:30 - 15:00

ZENBAT KOSTATZEN DA?

Kudeaketaren kostua Udalak hartuko du bere gain.

PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: Berehala

ARAUDI APLIKAGARRIA

- VII. ERANSKINA- Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2016ko martxoaren 9ko 2016/399 Erregelamendua, norbanakoak mugetatik igarotzeko Batasunaren arauen kodea ezartzen duena(Schengen muga kodea) -

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

1. Eskaria eta dokumentazioa jaso eta egiaztatu.
2. Baimena egin eta eskatzailerari eman.

NORK ONARTU BEHAR DU?

Udaltzain instruktorea

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Udaltzaingoa - Udaltzaingoa

OHARRAK

Baimenaren baliozkotasuna: 90 egun, baimenaren espediente datatik.

NANarekin bidaiatu daitekeen herrialdeak: Alemania, Austria, Belgika, Bulgaria, Zipre, Danimarka, Eslovakiia (turismo egonaldietarako bakarrik), Eslovenia (turismo egonaldietarako bakarrik), Espainia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Hungaria, Irlanda, Italia, Letonia, Lituania, Luxenburgo, Malta, Herbehereak, Polonia, Portugal, Erresuma Batua, Txekiar Errepublika eta Suedia.

Beste herrialde batzuk: Andorra, Liechtenstein, Kroazia, Islandia, Monako, San Marino, Suitza, Norvegia, Errumania (30 egunetik gorakoak izango ez diren egonaldietarako bakarrik) Vatikanoa.

Informazio gehiago:

udaltzaingoa@amorebieta.eus

Udaltzaingoa: 94.630.01.60